



# 1. BALIOZKO PROPOSAMENA

## GURE IDEIA:

Aurrera eramatea erabaki dugun ideia, **birziklapenean oinarritzen den enpresa** bat da, zeinek jomuga bezala kutsadura murriztea eta ingurunea laguntzea duen. Guztiok kontainer-ontzietara botatzen dugun beirari baliagarritasuna emango diogu, bitxiak eta apaingarriak sortuz.



## NOLA EGINGO DUGU?

Beira horren bilketarako herritar guztien laguntza behar izango da, beirazko botilak gure dendatik kanpo egongo diren edukiontzi batera botatzeko aukera izango dute eta birziklatu izateagatik, herritarrek gure dendan eskaintzen diren produktueterako **beherapenak** jasoko dituzte.

Honetaz aparte, enpresaren, hau da, gure dendaren diru sarreraren %10 fundazio batera egongo dira zuzenduta eta ziurtatuko gara fundazio honek itsasoak garbitzeko inbertitzen duela dirua, gure ekosistemak eta espezieak salbatu ahal izateko. Fundazio hau **Fundación Biodiversidad** deitzen da.



Fundación Biodiversidad

Eta aurreko ezaugarri guztiak dira **beste enpresa batzuetatik bereizten gaituena;**

- Jendea birziklatzera bultzatzen dugu, honen truke bitxiak eta hauetan beherapenak eskainiz.
- Gizartea proiektu honetan parte hartzea ahalbidetzen dugu, azken finean pertsona haiek dira beira ekarriko dutenak.
- Dirua inbertitzen dugu ekosistemak eta espezieak salbatzeko (Fundación Biodiversidad).



El Regato ikastetxea: Paula Alonso, Naroa García, Andoni Goikoetxea, Leire Gojenuri eta Iratxe Lastra

Bezeroek birziklatzeko aukera izateaz gain, zerbitzu asko eskaintzen dizkiegu non haien eskaerei egokitzen garen, adibidez bezeroek eskaintzen duten beira gure onurarentzat erabiltzeaz gain, haiek ekarritako produktuak (beira: botilak, ontziak, etab.) eraldatzen ditugu, haien interesak kontuan hartuz.

Beraz, esan dezakegu **gure enpresa oso berritzailea** dela, ez bakarrik ingurumena laguntzen dugulako gure diru- sarreren bidez, baizik eta beherapenak eskaintzen ditugulako bezeroei beiraren truke eta gainera haiek nahi dituzten produktuak eraldatzen ditugulako.

Gure dendak aurkitu ahal izateko, ez dira zailtasunik egongo, denda fisikoaz izateaz gain Bilbon, zehazki Alde Zaharrean dagoena, baditugulako interneten bidezko dendak, erraztasun gehiago eskaini ahal izateko.

Gure enpresak eskaintzen dituen produktuen **diseinuari** dagokionez, bitxiez gain, apaingarriak eskaintzen ditugu, diseinu desberdinekin eta baita ere, lehen aipatu dugun bezala, bezeroek haien produktuak diseinatzeko aukera izango dute.



**Kalitateari** dagokionez, gure enpresa saiatzen eta esfortzatzen da eskaintzen ditugun produktuak onak eta erresistenteak izateko, gure bezeroen nahiak asetuz. Horretarako zenbait material erabiltzen ditugu, hauen artean esmaltea. Noski erabilitako material guztiak ingurumenarekiko jasangarriak izango dira.

Aurretik aipatutako Online dendan eskaintzen ditugun produktu guztiak aurkezten ditugu hauen **prezioa** eta materiala argituz:

<https://birbeiratu.wixsite.com/elkarte?fbclid=IwAR3aJsVzat5usw0CizPnnuUmLwSMJGT8yLTm5IUKYNYQWcxxqfUQksjXuTQ>

